

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

15/2015 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait zerga arau aldatzeko

Arabako Biltzar Nagusiek 2015eko urriaren 28an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

15/2015 Foru Araua, urriaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko zenbait zerga arau aldatzeko

ZIOEN AZALPENA

Foru arau honen helburu da zenbait aldaketa egitea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eta aseguru primen gaineko zergan.

Hona hemen, besteak beste, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egindako aldaketak:

– Zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko arauetan, adierazten da gastuaren ehuneko 10eko forfaitak hauek ere jasotzen dituela: Zergaren Foru Arauaren 27. artikulua 5. arauaren bigarren idatz zatiko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen edo balio-galera gastuak.

– Ondare irabazi eta galeren arloan, zordunaren eta haren bermatzailearen ohiko etxebizitza eman ahal izango da ordainetan, zergadunaren ohiko etxebizitzaren hipoteka exekutatzeko prozedurari darion ondasun irabaziak salbuesteko.

– Lan-sozietateak eratzen dituzten ezaugarri bereziak kontuan izanik, sozietate horien akzioen edo partizipazioen eskualdatze balioa zehazteko, trataera berezi bat ezarri da; hain zuzen ere, sozietatearen kontratuetan eta kontratu sozialetan ageri dena, baldin eta eskualdaketa haietan zehaztutako prezioetan egin bada.

– Ohiko etxebizitzaren eskualdaketa lortutakoa berriro inbertitzean, berariaz adierazten da berriro inbertitzeagatik den salbuespen eskubidea zergadunak aurretik izan duen ohiko eta familia etxebizitza eskualdatzeari baino ezin izango zaiola aplikatu; aplikatu ere zergadunak han bizitzeari utzi dionean, epaileak hala erabaki duelako, ezkontideak edo izatezko bikotea banatze prozedura batean murgildurik egoteagatik.

– Zehazten da, halaber, ezkontidearen aldeko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko murrizketa aplikatzea, ez zaiola, inondik inora, lotzen ekarpena egiten duen zergadunaren erretiroari eta bai ekarpenaren onuradun den ezkontidearen egoerari.

– Inbertsioen eta beste jarduera batzuen kenkariak direla eta, aukera hau gehitzen da: jarduera ekonomikoetan diharduten zergaren zergadunek sozietateen gaineko zergan kultura sustatzeko araututako pizgarriak aplikatzea izan dezatela.

– Egokitu egiten dira negoziatu egin daitezkeen balioen ondorio diren ondasun irabazien zerga ordainketaren aukerako araubideari buruzko arauak eta, horretarako, haren aplikazio eremutik kanpo uzten dira balio horiei darizkien harpidetza eskubideak eskualdatzeko arrazoiak.

– Zergaren araudia egokitu egiten zaio pentsio plan eta funtsen araudian izandako aldaketari, partaidearen ohiko etxebizitzari buruzko exekutatzeko prozeduretan pentsio planetan

bateratutako eskubideen diruaren berreskuratzea ahalbideratzeko, baldin eta berreskuratze horrek etxebizitza besterentzea saihesten badu. Aurrerantzean, berreskuratze horiek pentsio planen zerga trataera orokor bera izango dute.

– Mendeko finantza-ekarpenekin eta lehentasunezko partizipazio edo partaidetzekin zerkusia duten manuak onartzen dira.

Sozietateen gaineko zergaren arloan, ondare sozietateen araupetzea aldatzen da, besteak beste.

Hona hemen ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan egingadako aldaketak:

– Foru arau honetan ezartzen da bahitzeko eskumena duen administrazioak ofizioz agindutako bahiturako prebentziozko oharrak ez direla lotuta egongo egintza juridiko dokumentatuen modalitateara.

– Subjektu pasiboa zorduna denean, salbuetsita daude Konkurtso Legean araututako berriro finantzatzeko akordioetan eta auzibideaz bestelako akordioetan jasotako kitak edo murrizketak jasotzen dituzten eskriturak.

– ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) etxebizitza libreen alokairuaren merkatuko bitartekaritza-programako etxebizitzak alokatzeagatiko salbuespena jasotzen da.

Aseguru primen gaineko zergaren arloan, ezarri da ordezkariak lurralde espainiarrean egon beharra daukala.

I. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua. Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenaren, aldaketa

Lehenengoa. Zenbait aldaketa egiten dira pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua. Aldaketa horiek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, salbu eta hurrengo bat puntuan ezarritakoa: kasu horretan data horren aurretiko preskribatu gabeko zerga-egitateei eragingo die.

Bat. Hona 42. artikulua e) letraren edukia:

“e) Zordunaren edo zordunaren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainetan ematen denean, haren gaineko hipotekekin bermatutako zorrak kitatzeko, baldin eta zorrok mailegu eta hipoteka kredituak era profesionalean ematen dituen kreditu erakunde edo beste zernahi erakunderekin badira.

Izaera berbera izango du ondorengo kasuan: zordunaren edo zordunaren bermatzailearen ohiko etxebizitza ordainean ematea zordunaren ohiko etxebizitza eskuratzeko zorrak bermatzeko abal-emailea izanda egiten delarik.

Salbuetsita egongo dira, halaber, aurreko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren besterentzeen ondorioz izandako ondare irabaziak, epaile edo notario erabaki bidez exekutatu badira hipotekak.

Horrelakoetan, ezinbestekoa izango da ohiko etxebizitzaren jabeak beste ondasun edo eskubiderik ez izatea edo horrelako nahikorik ez izatea, zorra guztiz kitatzeko eta, beraz, etxebizitzaren besterentzea saihesteko.”

Bi. 49. artikuluar 3. idatz zatia gehitzen zaio. Hona haren edukia:

“3. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa hauei era aplikatuko zaie: eskualdaketa aurretik ohiko etxebizitza eta familia etxebizitza izaera izan duen etxea eskualdatzean lortutako ondare

irabaziei, aplikatu ere zergadunak han bizitzeari utzi dionean, epaileak hala erabaki duelako, ezkontideak edo izatezko bikotea banatze prozedura batean murgildurik egoteagatik.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzea edo ez baldintzapean dago, alegia, eskualdatzen edo ez den familia etxebizitza zergadunaren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen ohiko etxebizitza izatea.”

Hiru. Hogeita hirugarren xedapen gehigarri bat gehitzen da. Hona haren edukia:

“Hogeita hirugarrena. Pentsio planetan finkatutako eskubideak berreskuratzea, ohiko etxebizitzaren gainekoak exekutatzuz gero.

1. Partizipaziodunek pentsio planetan finkatutako eskubideen berreskuratzea, Pentsio planak eta funtsak arautzeko Legearen testu bateratuaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, pentsio planetako prestazioetarako foru arau honetan xedatutako zerga araubideari lotuta egongo da, zergati horregatik eskubideen lehen berreskuratzea ehuneko 60n integratzea barne. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen testu bateratu hori.

2. Hauei ere aplikatuko zaie aurreko idatz zatian xedatutakoa: zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutako eskuragarritasuna dela-eta berreskuratzeak egiten dituzten foru arau honen 70. artikuluan aipatzen diren aurreikuspen plan bermatuetako, enpresa gizarte aurreikuspeneko planetako eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetako asegurudunei.

3. Aseguru kolektiboaren prestazioetarako xedatutako zerga araubideari lotuta egongo da asegurudunek zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutako aseguru kolektiboetan finkatutako eskubideak berreskuratzea.

Batez ere, foru arau honen 19. artikulua 2. idatz zatiko c) letran xedatutakoari jarraituz aplikagarri den ehuneko zehazteko, aseguru kolektiboaren berreskuratzea erretiro prestazioen pareko izango da.”

Lau. Hona hemezortzigarren xedapen iragankorraren edukia:

“Hemezortzigarrena. Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen gaindikinen araubide iragankorra (2014a baino lehenagoko zergaldietan murriztu ez diren ekarpenak).

1. Foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 71. artikulua 3. idatz zatian eta zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemari larregiz egindako ekarpenak eta ordainketak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak eta 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak, foru arau honen 71. artikulua lehen idatz zatian eta bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. idatz zatian xedatutako mugak zainduz murriztu ahalko dira. Ezin izango da, berriz, foru arau honen 70. artikulua 5. idatz zatian xedatutako erretiro egoerari buruzko muga aplikatu.

2. Gehienez ere, 2.400 euro murriztu ahalko dira urtean, bazkidea, partaidea, mutualista edo aseguruduna erretiratuta dagoen ala ez gorabehera, ezkontidea edo izatezko bikotekidea bazkide, partaide, mutualista edo titular duen gizarte aurreikuspeneko sistemara zergadunak larregiz egindako ekarpenak eta ordainketak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak, 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak eta foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 71. artikulua 3. idatz zatian aipatuak.

3. Foru arau honen 72. artikulua 2. idatz zatian xedatutako mugak zainduz murriztu ahalko dira ezintasunen bat duten pertsonen alde eraturako gizarte aurreikuspeneko sistemara larregiz egindako ekarpenak, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 ekitaldietan egindakoak, 2014ko urtarrilaren 1ean artean murriztu gabe zeudenak eta foru arau honen (2013ko abenduaren 31n indarrean zen idazketa) 72. artikulua 1. idatz zatian aipatuak.”

Bost. Hogeita bigarren xedapen iragankor bat gehitzen da. Hona haren edukia:

“Hogeita bigarrena. Sozietateen gaineko zergaren Legearen testu bateratuaren hogeita laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera desegin eta likidatutako ondare

sozietateetako bazkideen araubidea. Testu bateratu hori martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen.

Xedapen iragankor horren 2. idatz zatiaren d) letran eta 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta Sozietateen gaineko zergaren Legearen testu bateratuaren (martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) hogeita laugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatzen zaien ondare sozietateetako bazkide badira.”

Bigarrena. Zenbait aldaketa egiten dira azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenean. Aldaketa horiek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. Ezabatu egiten da 19. artikulua 2. idatz zatiko b) letraren azken paragrafoa eta gehitu egiten zaio paragrafo bat artikulua horren 2. idatz zatiari. Hona horren edukia:

“Idatz zati honen b) eta c) letretan aipatzen diren etekinen zenbatekoak, zeini 100etik beherako integrazio portzentajea aplikatu zaien, 300.000 euro baino gutxiago izango da urteko. Zenbateko horretatik gorakoa ehuneko 100ean integratuko da.”

Bi. Hona 23. artikulua 3. idatz zatiaren edukia:

“3. Aurreko idatz zatietan jasotako hobariak honela gehituko dira:

a) Zergaduna aktibo dagoen langile ezindua bada eta haren ezintasun gradua ehuneko 33-65 bitartekoa bada, hobaria ehuneko 100 gehituko da.

b) Zergaduna aktibo dagoen langile ezindua bada, haren ezintasuna ehuneko 33-65 bitartekoa bada eta mugitzeko gaitasuna murriztuta badauka, hobaria ehuneko 250 gehituko da. Halakotzat joko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren, ezintasun gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzkoaren, II. eranskineko baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak, baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago dauzkatenak. Ehuneko bera aplikatuko zaie ehuneko 65eko ezintasuna edo handiagoa daukaten langile ezinduei ere.”

Hiru. Hona 26. artikulua 4. idatz zatiaren lehenengo paragrafoaren edukia:

“4. Zergadunak ondare elementuak jarduera bati atxikitzea edo aktibo ez-korrontekak hartatik jaregitea ez da ondare aldakuntza izango, baldin eta ondasunek edo eskubideek beraren ondarean jarraitzen badute.”

Lau. Hona 27. artikulua 1. arauaren edukia:

“1. Ez dira gastu kengarritzat joko Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 31. artikulua 4. idatz zatian aipatutako kontzeptuak, ez eta enpresaburu edo profesionalak bere gizarte aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak ere, foru arau honen 70. artikuluan ezarritakoa gorabehera.

Dena den, gastu kengarri izango dira norberaren konturako langileek edo langile autonomoek, Gizarte Segurantzatik kanpo daudenek, gizarte aurreikuspeneko mutualitateekin hitzartutako aseguru kontratuengatik ordaindutako zenbatekoak, baldin eta, azaroaren 8ko 30/1995 Legearen, aseguru pribatuak ordenatzeari eta gainbegiratzeari buruzkoaren, hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoak betetzeko, aipatutako Gizarte Segurantzaren araubide bereziaren ordezkari badihardu, araubide berezi horretan jorratutako gertakizunak estaltzea helburu dutenetan. Horren muga, ekonomia ekitaldiko, gertakizun arruntengatik xedatutako gehieneko kuota ehuneko 50 izango da, araubide berezi horretan.”

Bost. Hona 28. artikulua 1. idatz zatiaren edukia:

“1. Haxe egingo da etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodo erraztuaren bidez kalkulatzeko:

a) Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan eta aurreko artikuluan ezarritako arauetan xedatutakoarekin bat etorri kalifikatu eta zenbatuko dira sarrerak eta gastuak, hauek izan ezik: narriaduraren ondoriozko galerak, amortizazioak, foru arau honen 27. artikulua 5. arauaren bigarren idatz zatiko a) letran eta hirugarren idatz zatiko a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuak, ez eta jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak eta galerak ere.

b) Aurreko letran aipatutako sarreraren eta gastuen arteko diferentzia kalkulatu da eta kopuru horri ehuneko 10 kenduko zaio, foru arau honen 27. artikulua 5. arauaren 3. idatz zatian a) letran aipatutako amortizazioengatik, narriaduraren ondoriozko galerengatik, alokairu gastuengatik, lagapenengatik edo balio galeragatik eta gastu frogagaitzengatik.

c) Jarduerari atxikitako ondare elementuen irabazi eta galerak gehitu edo kenduko zaizkio b) letran esandakoaren arabera ateratzen den kopuru edo emaitzari, foru arau honen 25. artikulua 3. idatz zatian xedatutakoari jarraituz.”

Sei. 43. artikulua d) letra honela geratzen da:

“d) Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketen ondoriozkoak, baldin eta ondasunok aurretik egindako kostu gabeko eskuraketa salbuetsi batetik badatoz edo zergarik ordaindu ez badute.

Hala ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko zergadunak frogatzen badu ondasun higiezinaren balioa aparteko inguruabarrengatik gutxitu dela, ez eta galeraren eragileak besterentzearen edo eskuraketaren berezko gastuak direnean ere.

Zazpi. 47. artikulua 1. idatz zatiko b) letrari paragrafo bat gehitzen zaio. Hona haren edukia:

“Lan sozietateen lan erako akzioak edo partizipazioak eskualdatzen direnean, eskualdaketen zenbatekoa izango da sozietatearen kontratuetan, sozietate-kontratuetan edo harekin izandako kontratuetan ageri dena, baldin eta eskualdaketa haietan zehaztutako prezioetan egin badira.”

Zortzi. Hona 47. artikulua 1. idatz zatiko d) letraren azken paragrafoaren edukia:

“Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onartutako azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiaren, talde inbertsioko erakundeenaren, 79. artikuluan aipatzen diren kotizatutako inbertsio funtsen partizipazioak eskualdatzen direnean balore burtsetan, eskualdaketa balioa 1. idatz zati honetako a) letran ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da.”

Bederatzi. Hona 47. artikulua 1. idatz zatiko n) letraren edukia:

“n) Urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuak araututako eperakoen eta aukeren merkaturatuetan egiten diren eragiketen ondoriozko ondare irabazia edo ondare galera lortutako etekina izango da; hala ere, eragiketak zergadunaren jarduera ekonomiko batean itundutako eragiketa nagusi baten estaldura badakar, titulu honen III. kapituluaren ezarri den bezala zergapetuko da.”

Hamar. Hona 48. artikulua 1. idatz zatiko azken paragrafoaren edukia:

“Idatz zati honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko zergadunak talde inbertsioko akzioak edo partizipazioak berreskuratuta edo eskualdatuta lortutako zenbatekoa jasotzen badu. Gainera, araubide hori kasu honetan ere ezin aplikatu izango da: azaroaren 4ko 35/2003 Legearen, talde inbertsioko erakundeenaren, Araudiaren 79. artikuluan (araudia uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onartu du) ezarritakoaren arabera kotizatzen duten inbertsio funtsak diren talde inbertsioko erakundeen ondarearen partizipazioak edo halako sozietateen akzioak berreskuratzen, eskualdatzen, harpidetzen edo eskuratzen direnean.”

Hamaika. Hona 50. artikulua 4. idatz zatiko bigarren paragrafoaren edukia:

“Aipatutako manuan xedatutakoaren aplikazioaren emaitzako kuota osoa izango da zehapenaren oinarria. Zehapenaren oinarria finkatzeko ez beste ezertarako, oinarriaren kalkuluan ez dira kontuan hartuko aurreko ekitaldietatik konpentsatzeko, kentzeko edo aplikatzeko dauden

diru kopuruak, ez egiaztapena egiten den ekitaldikoak ere, zerga oinarritik, likidazio oinarritik edo kuota osotik ken litezkeenak.”

Hamabi. Hona 71. artikulua 3. idatz zatiaren edukia:

“3. Aurreko artikulua 1. idatz zatian aipatzen diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak egin dituzten bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuek aukera edukiko dute ekarpenok hurrengo bost ekitaldietan murrizteko, aipatutako muga errespetatuta, baldin eta zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan badira artikulua honen 1. idatz zatiko a) letran ezarritako gehieneko muga gainditzeagatik eta murrizketa aplikatzen den ekitaldian erretiratuta ez badaude.

Modu berean jokatu daiteke bai enpresa kontribuzioen gehiegiko zenbatekoekin, haien mugari dagokionez, bai artikulua honen 1. idatz zatiko c) letran aipatutako guztirako muga aplikagarriekin.

Halaber, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira aurreko artikulua 3. idatz zatian xedatutakoa dela bide egindako ekarpenetatik idatz zati horretan ezarritako muga gainditzeagatik zerga oinarri orokorrean murriztu ezin izan diren ekarpenak, baldin eta zergaduna ordurako erretiratuta ez badago.

Ekarpenak edo kontribuzioak zerga oinarri orokorrean ezin izan direnean murriztu hori nahikoa ez izateagatik, hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahal izango dira, haiek gainditu gabe; baldin eta murrizketa egiten den ekitaldian bazkide, partaide, mutualista edo aseguratuen den ezkontidea edo izatezko bikotekidea erretiratuta ez badago.

Erregela horiek ez zaizkie aplikatuko beren araudi finantzarioan jasotako gehieneko mugak gainditzen dituzten ekarpen eta kontribuzioei.”

Hamahiru. Hona 82. artikulua 1. idatz zatiko bigarren paragrafoaren edukia:

“Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eranskinean eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera neurtuko dira aurreko paragrafoan aipatzen diren mendekotasunaren edo ezintasunaren gradua eta puntuak. 174/2011 Errege Dekretuaren bidez onartu zen abenduaren 14ko 39/2006 Legean, autonomia pertsonalaren sustapenari eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzkoan, mendekotasuna baloratzeko ezarritako baremoa.”

Hamalau. Hona 86. artikulua 4. idatz zatiaren edukia:

“4. Baldin eta epaile batek ebazpen bidez ezartzen badu zergadunak bere kargura ordaindu behar duela familia etxebizitzaren alokairua, berak aplikatu ahal izango du artikulua honen kenkaria autolikidazioan. Baldin eta betebeharrak hori bi zergadunei badagokie, euren artean hainbanatuko dute kenkaria eta bakoitzak bidezko proportzioan aplikatuko du bere autolikidazioan, artikulua honen 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoan ezarritako ehuneko eta muga kontuan hartuta, salbu eta lehen idatz zati horren bigarren paragrafoan xedatutako betekizunak betetzen diren; horrelakoetan, paragrafo horretan adierazitako ehuneko eta muga aplikatzeko eskubidea izango du.”

Hamabost. Hona 87. artikulua 7. idatz zatiaren edukia:

“7. Epaileak erabakita, zergadunari bakarrik ezarri bazaio etxebizitza familiarrarengatik aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren diru kopuruetakoa bat ordaindu beharra, berak edukiko du artikulua honetan aipatzen den kenkaria autolikidazioan aplikatzeko eskubidea. Betebeharrak hori bi zergadunei ezarri bazaie, kenkaria bien artean hainbanatuko da, eta bakoitzak bidezko proportzioan aplikatuko du bere autolikidazioan, aurreko 1. eta 2. idatz zatietan ezarritako ehunekoak eta gehieneko kopuruak kontuan edukita, salbu eta artikulua honen laugarren idatz zatian xedatutako betekizunak betetzen diren; horrelakoetan, idatz zati horretan adierazitako ehuneko eta muga aplikatzeko eskubidea izango dute.”

Hamasei. Hona 88. artikularen 1. idatz zatiaren edukia:

“1. Zerga honetako zergadunek aktibo ez-korrante berrietan inbertsioak pizteko eta zenbait jardueraren burutzea pizteko Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren V. tituluaren III. kapituluaren eta hamabosgarren xedapen gehigarriaren zehazten diren kenkariak aplikatu ahal izango dituzte, kenkari portzentaje eta muga berekin.”

Hamazazpi. Hona 98. artikularen 4. idatz zatiko bigarren paragrafoaren edukia:

“Urtean zehar familia unitateko kideren bat hil bada, gainerako kideek zerga batera ordaintzea hautatu ahal izango dute. Hala bada, autolikidazioan hildakoaren errentak sartu behar dituzte, bai eta zendua dela eta foru arau honen VII. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoaren arabera aplikatu daitezkeen kenkari pertsonalak eta familiarak ere; kenkariak ez dira murriztu behar heriotza egunera arteko aldiaren proportzioan.”

Hemezortzi. Hona 105. artikuluko d) letraren edukia:

“d) Ezintasunaren edo mendekotasunaren kenkaria, 82. artikuluan arautua.”

Hemeretzi. Hona hogeigarren xedapen gehigarriaren lehen idatz zatiaren edukia:

“Bat. Foru arau honen 47. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen diren baloreak kostu bidez eskualdatzen dituzten zergadunek aukeran izango dute artikuluko horretan xedatutakoa aplikatzea eskualdaketa sortutako ondare irabazia kalkulatzeko, edo ehuneko 3ko karga berezia aplikatzea eskualdaketa balioari, betiere balio hori 10.000 eurotik beherakoa bada ekitaldi bakoitzean, eskualdatutako balore guztiak batuta.

Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa ez zaio aplikatutako balore horien ondorio diren harpidetza eskubideen eskualdaketari, eta haren eskualdaketa balorea ere ez da zenbatuko aurreko paragrafoan aipatutako balore eskualdaketen multzoaren eskualdaketa balorea zehazteko. Foru arau honen 47. artikularen 1. idatz zatiko a) letraren bigarren paragrafoaren arabera zehaztuko da harpidetza eskubide horien eskualdaketa ondorio den ondare irabazia.

Tributazio aukera hau berariaz jakinarazi behar da aplikatzen den zergaldiko autolikidazioa aurkezten denean, Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorren 115. artikularen 3. idatz zatian xedatutakoaren ondorioetarako. Zergaldi baterako egiten den hautapena geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere zergaren aitortzea bere borondatez aurkezteko epealdia amaitu arte edo, bestela, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte.

Zergadunak araubide hori aplikatzen badu eta balore homogeenok badaude, eskualdatu dituen baloreak lehenik eskuratu zituenak direla pentsatuko da.”

Hogei. Hona hogeita batgarren xedapen gehigarriaren 1. idatz zatiaren edukia:

“1. Foru arau honen 9. artikularen 5. zenbakian xedatutakoaren arabera kopuru batzuk salbuetsia egotea gorabehera, eta kontuan edukita hurrengo idatz zatian azaltzen diren betekizunak bete behar direla, lanaren etekin gisa integratuko da hurrengo idatz zatian aipatzen diren langileek jasotzen dituzten kopuruaren ehuneko 70, muga honekin: lanbide arteko gutxieneko soldata 2,5ez biderkatzearen emaitza urtean.

Muga hori aurreko ehuneko 70 aplikatu baino lehen ezartzen da; mugatik gorako kopuruak oso-osorik sartu behar dira zerga oinarrian.”

Hirugarrena. Aldaketa hauek egiten dira azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenean. Aldaketa horiek bertan aipatutako ondorioak izango dituzte:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita laugarrena. Hona haren edukia:

“Hogeita laugarrena. Pertsona fisikoek ekainaren 24ko 4/1993 Legean, Euskadiko kooperatibenean, xedatutako mendeko finantza-ekarpenen ondorioz lortutako etekinei aplikagarri zaien zerga araubidea.

1. Foru arau honen 35. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, norbere kapitalak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako etekin gisa kalifikatuko dira, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko kooperatibenean, 57. artikuluko 5. idatz zatian aipatzen dituen mendeko finantza-ekarpenen ondorio diren errentak.

2. Ondoren adierazten diren egoerak noiz gertatzen edo gertatuko diren gorabehera, hau izango da aplikagarri den zerga tratamendua:

a) Etekinak aurreko idatz zatian xedatutakoaren arabera kalifikatuko dira, balore horiek eskualdatzeko, berreskuratzeko, ordaintzeko, amortizatzeke, trukatzeko edo bihurtzeko eragiketetan.

Zerga trataera bera izango dute saltzen dituzten erakundeekin epaiz kanpoko erabakien ondorio diren salerosketa edo transakzioek, ordainketa horiei konturako atxikipena egin zaien ala ez gorabehera.

b) Tituluen harpidetzaren deuseztasuna deklaratzeko duten epaiak direnean, esan nahiko du haien titularrak ondare irabazi edo galera bat izan duela, eta bata edo bestea epaia behin betiko bihurtzen den ekitaldiari egotziko zaiola. Horrelakoetan kontuan izango da bere alde onartutako berandutze interesen eta ordaindu behar duen zenbatekoaren, dagozkion berandutze interesak barne, artean dagoen alde garbia. Arrazoi horregatik, ordea, ez dira dagozkion autolikidazioak zuzenduko.

c) Titulu horien kooperatiba jaulkitzaileei dagokienez, kooperatiba horiek konkurtso egoeran badaude eta titulu horiek konkurtso kreditu bihurtzen badira, zergadunek kreditu horren ondorio den ondare aldaketa errenta orokorrean sartu ahal izango dute, foru arau honen 62. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik edo xedapen gehigarri honen 1. idatz zatian araututako kalifikazioa aplikatzeagatik.

3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoak ez du aldatuko kooperatiba jaulkitzaileentzako mendeko finantza-ekarpenen zerga tratamendua. Horiei ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren, kooperatiben zerga araubidearenaren, 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Bi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, hogeita bosgarrena. Hona haren edukia:

“Hogeita bosgarrena. Menpeko finantza-ekarpenen, lehentasunezko partizipazioen eta mendeko zorraren ondorio diren errenta negatiboak integrazteko eta konpentsatzeko araubidea.

1. Foru arau honen 66. artikuluan 1. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, idatz zati horren a) eta b) letretan aipatzen diren saldo negatiboen zatia, ekainaren 24ko 4/1993 Legearen, Euskadiko kooperatibenean, 57. artikuluan 5. idatz zatian aipatzen diren mendeko finantza-ekarpenen ondorio diren ondare galeren edo higigarrien kapitalaren etekin negatiboen emaitza dena, noiz gertatu den gorabehera, letra horietan aipatutako saldo positiboarekin konpentsatu ahal izango dira, bata zein bestea.

Mendeko finantza-ekarpenen berreroste, harpidetza edo truke bidez jasotako baloreen eskualdatzearen ondorio diren ondare galerei eta higigarrien kapitalaren etekin negatiboari ere aplikatuko zaie konpentsazio araubide hori.

2. Maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen, finantza-bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio-betebeharrei buruzkoaren, bigarren xedapen gehigarrian xedatutako baldintzetan jaulkitako mendeko zorraren baloreek eta lehentasunezko partizipazioek aurreko idatz zatian xedatutako trataera bera izango dute hala ondare galeren nola higigarrien kapitalaren etekin negatiboen ondorio diren saldo negatiboen zatiari dagokionez, bai

eta berrerozte eta harpidetza edo truke eragiketen bidez jasotako baloreen eskualdaketaren ondoriozkoak direnei ere, noiz gertatzen edo gertatuko diren gorabehera.

3. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da xedapen gehigarri honetan araututako integratze eta konpentsatze araubidea, 2. idatz zatian xedatutakoak izan ezik, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango baititu ondorioak.”

II. KAPITULUA

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

2. artikulua. Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergarenaren, aldaketa

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan, sozietateen gaineko zergarenean, aldaketak egin dira. Aldaketa horiek 2015eko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan izango dituzte ondorioak. Hona aldaketa horiek:

Bat. Hona 14. artikulua 2. idatz zatiko c) letraren edukia:

“c) Ez dira jarduera ekonomikoei atxikitako ondasun hartuko, era berean, laga diren edo haien gaineko eskubide errealak eratu diren ondasun higiezinak, tartean direla haien errentamendua, azpierrentamendua edo erabilera nahiz eskubide edo ahalmenen eraketa edo lagapena, edozein izanda ere haien izena edo izaera, ez eta aktibo korrante jotzen direnak ere, salbu eta higiezinaren eraikitze, sustapen, salerosketa edo errentamendu jarduera ekonomiko bati lotuta daudenean, erakundeak plantillan izan ditzan, gutxienez, urtean batez beste bost langile, inoren kontura enplegatutak, lanaldi osoarekin eta jarduera horretarako dedikazio esklusiboarekin. Horretarako, ez dira zenbatuko foru arau honen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunarekin lotutzat jotzen diren langileak.

Batez besteko plantilla zenbatzeko aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileak hartu behar dira kontuan, hain zuzen ere foru arau honen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zergadunarekin lotutako ondare sozietatea ez bestelako erakundeetan enplegatuta daudenak.

c) letra honetan eta artikulua honen 1. idatz zatiko c) letraren bigarren lerroaldean xedatutakoa gorabehera, ez dira jarduera ekonomikoei ez lotutako gai gisa hartuko aktibo korrante izaera duten ondasun higiezinak, baldin eta honako erakunde hauetakoren batenak badira:

a') Betekizun hauek betetzen dituzten erakundeak:

1. Erakundeak jarduera higiezin sustapena edo eraikuntza izatea eta jarduera ekonomiko hori denboran zehar etengabe garatzeko ezinbesteko giza baliabideak eta materialak dituela egiaztatzea.

2. Bere aktiboen ehuneko 85 edo gehiago ondasun higiezin osatuta egotea eta aktibo horiek aktibo korrante izaera izan dezatela, higiezinaren sustapen edo eraikuntzarako jarduerari loturik egoteagatik.

3. Erakundearen diru sarreraren ehuneko 85 edo gehiago erakundeak sustatutako edo eraikitako ondasun higiezinaren eskualdaketatik etortzea. Hiru zenbaki honetan adierazitako diru sarrerak zenbatzean, ez dira kontuan hartuko foru arau honen 42. artikuluan xedatutako eran lotutako pertsona edo erakundeek egindako eragiketetatik datozenak.

b') Batez ere higiezinak sustatzen edo eraikitzen diharduten, jarduera hori denboran zehar etenik gabe betetzeko bitarteko materialak eta pertsonalak dituztela egiaztatzen duten eta zergaldian haren eragiketa bolumena 13. artikulua 2. idatz zatiko b) letran adierazten den zenbatekoa gainditzen ez duten erakundeak.

Horrelakoetan, zergaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da. Era berean jardungo da erakunde sortu berri bat denean, erakunde

jardueragabe batek jarduera ekonomiko bati ekiten dionean edo jarduera ekonomiko batean ari izan dena erakunde jardueragabe bihurtzen denean.

Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, erakundea sozietate talde bateko kide bada, gorago aipatutako eragiketa bolumena taldeko erakunde guztiek izandakoen batuketa izango da. Horretarako, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hori garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera bidezkoak diren ezabapenak hartuko dira kontuan.”

Bi. 14. artikulua 4. eta 5. idatz zatiak aurrerantzean 5. eta 6. idatz zatiak izango dira, eta 4. idatz zatia berria da. Hona haren testua:

“4. Ondare sozietateek ezin izango dituzte aplikatu foru arau honetan ez 13. artikuluan aipatzen diren mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainentzat xedatutakoak ez 27. eta 28. artikuluetan meztarritza lanetan eta hidrokarburoen ustiapenean diharduten erakundeentzat xedatutakoak.

69. artikuluan eta 115. artikulua 5. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, ondare sozietateei ez zaizkie aplikatuko foru arau honen VI. tituluaren xedatutako araubide bereziak, salbu eta titulu horren VII. kapituluaren xedatutakoa.”

Hiru. Hona 115. artikulua 5. idatz zatiaren edukia:

“5. Erakunde bati VI. titulu honetako gainerako araubide berezietako bat aplikatu ahal bazaio (salbuespenak: zerga baterakuntzaren araubide berezia; bategiteen, zatiketen, aktibo ekarpenen, balore trukeen, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoaren, eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzearen araubide berezia), ezin hautatu izango du kapitulu honetako araubidea, hurrengo paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe.

Foru arau honen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain diren erakundeek hauen artean hauta dezakete: foru arau honetan halako erakundeentzat ezarritako espezialitateak aplikatu edo kapitulu honetako araubide berezia aplikatu.

Era berean, foru arau honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera ondare sozietate direnek hauen artean hauta dezakete: foru arau honetan halako erakundeentzat ezarritako espezialitateak aplikatu edo kapitulu honetako araubide berezia aplikatu.”

Lau. Hona 41. artikulua 2. idatz zatiko a) letraren edukia:

“a) Zergadunak zerrenda bat aurkeztu behar du, zerga honengatik aurkeztu behar duen azken autolikidazioarekin batera edo aurreko 1. idatz zatiko c) letran azaldutako inguruabarra gertatzen den zergaldikoarekin batera. 1. idatz zati horretan xedatutakoa aplikagarri duten ondare elementuak agertuko dira banan-banan zerrenda horretan, bai eta elementu bakoitzaren kontabilitate balioa, bakoitzaren merkatu balio normalaren eta kontabilitate balioaren arteko diferentzia eta kuota likidoan elementu bakoitzari dagokion zatiaren zenbatekoa ere.”

III. KAPITULUA

ONDARE ESKUALDAKETA ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA

3. artikulua. Martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena, aldatzea

Aldaketak egin dira martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauan, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarenean. Aldaketa horiek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eragingo dituzte ondorioak. Hona hemen aurrerantzean testuak izango duen edukia:

Bat. 64. artikulua aldatu da. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“64. artikulua. Zerga gaia.

Zerga gai dira:

1. Erregistro publikoetan egiteko luzatzen diren aurreneurritzko idatzoharrak, gaitzat eskubide edo interes baloragarri bat dutenean eta ofizioz agindu gabe eta aginte judizialaren edo administratiboak alderdi gisa esku hartu gabe gertatzen direnean.

2. Handitasunen eta noble-tituluen eskualdatzea eta birgaitzea.”

Bi. Hona 69. artikulua 1. idatz zatiko B) letraren 37. zenbakiaren edukia:

“37. Subjektu pasiboa zorduna denean, uztailaren 9ko 22/2003 Legean, konkurtsoarenean, araututako berriro finantzatzeko akordioetan eta auzibideaz bestelako akordioetan jasotako maileguen, kredituen eta zordunaren beste betekizun batzuen kitak edo murrizketak jasotzen dituzten eskriturak.”

Hiru. Hona 69. artikulua 1. idatz zatiko B) letraren 38. zenbakiaren edukia:

“38. Sozietateen gaineko zergaren Araudian ezarritako higiezin errentamenduko jarduera kualifikatua duten entitateen zerga araubide bereziari lotutako sozietateek erositako etxebizitzaren eskualdaketa, baldin eta errentamendu ondorio diren errentei aplikatzen bazaie zerga oinarrian errentak ez sartzeko araubidea, zerga araubide horretan bertan xedatua.”

Lau. Hona 69. artikulua 1. idatz zatiko B) letraren 39. zenbakiaren edukia:

“39. ‘Bizigune’ etxebizitza hutsen programari lotutako etxebizitzaren errentamendua, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuan arautua, edo ASAP (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) etxebizitza libreen alokairuaren merkatuko bitartekaritza, martxoaren 27ko 43/2012 Dekretuan arautua, bai eta antzeko foru edo udal plan edo programa batzuk ere.

Era berean, salbuetsita egongo dira zerga oinarrian errentak ez sartzeko araubidearen mendeko errentamenduak, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 115. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, higiezin errentamenduko jarduera kualifikatua duten entitateen zerga araubide berezian ezarritakoak, baldin eta horiek helburu badituzte sozietateek etxebizitzak alokatzeko eragiketarako. Horretarako, azaroaren 24ko 29/1994 Legearen, hiri errentamenduenaren, 2. artikuluan ezarritakoa baino ez da izango etxebizitza errentamendu.”

IV. KAPITULUA

ASEGURU PRIMEN GAINeko ZERGA

4. artikulua. Aldatzea irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aseguru primen gaineko zergarena

Aldaketak egin dira irailaren 30eko 12/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren, aseguru primen gaineko zergarenaren, 13. artikuluan. Aldaketa horiek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eragingo dituzte ondorioak. Hona hemen aurrerantzean artikulua horrek izango duen edukia:

“13. artikulua. Zerga ordezkaria izendatzea eta zerga administrazioari jakinaraztea.

Espainian egoitza duen zerga ordezkari bat izendatuko dute Europar Batasuneko Espainiaz bestelako estatu batean egoitza duten aseguru erakundeek, Espainian zerbitzu eskaintza librearen araubide pean dihardutenek, xedapen orokor honetan xedatutakoa betetzeko.

Subjektu pasiboak edo haren ordezkariak izendapenaren berri eman behar dio Zerga Administrazioari, behar bezala egiaztatuta.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 28a

Lehendakaria

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA